


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Soledad Abarrategi Eraña

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Uribarri auzoko
Ibarretagainekoa baserrian
jaio zen, sei anai-arrebatatik
gazteena. Aita bertakoa zuen
eta ama, berriz,
Aretxabaletako Aozaratza
auzoko Otalora baserrikoa.
Gesalibar auzoko Santa
Agedako "Escuela Católica"n
ikasi zuen, sei urtetik
hamabostera arte. Ibarretako
ortuetan hazten zituzten
tipula landareak eta
marrubiak Durangon,
Eibarren eta Elgoibarren
saltzen zituzten. Garia
ereiteari 60ko hamarkadan
utzi zioten, baina
ganaduentzako txidarra eta
oloa 2004ra arte erein
zituzten. Ibarretagaineko
alaba bik baserria eta lur-sail
gehienak saldu egin zituzten
lantegiak eraikitzeko.

Zintak

ARR-164

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-20
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ARR-165

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-20
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Garagartzan eta Santa Agedan eskolan ibilia

- **Erref:** ARR-164/004
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:07:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Karmen umetan Garagartzako eskola mixtoan ibili zen, don Ziriako Jauregi maisuarekin. Eskolako hainbat lagun aipatzen dituzte. Gero, Santa Agedako eskolan ibili zen. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren.

2. Santa Agedako "Escuela Católica"

- **Erref:** ARR-164/006
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:07:36. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Soledadek Gesalibar auzoko Santa Agedako "Escuela Católica"n egin zituen ikasketak. Eskola 1935ean egin zuten. Eskola egiteko lurak Elorrioko Urkizuko damek eman zituzten dohaintzan. Maistra izandako bat aipatzen dute. Eskolagatik hilean pezeta bat pagatzen zuten Karmen eta Soledaden gurasoek.

3. Elorrioko Urkizuko damak

- **Erref:** ARR-164/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:11:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Elorrioko Urkizuko damak Uribarri auzoko hainbat baserritako ugazabak ziren, tartean Ibarretagainekoa baserrikoak. "Grandes señores de Bizkaia" zirela diote, eta Bizkai aldean jabetza handiak zituzten.

4. Errentaren ordainketa

- **Erref:** ARR-164/008
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:11:26. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Ibarretagainekoa baserriko ugazabak Elorrioren bizi ziren, baina administraria zeukaten Arrasaten. Errenta kontuak. Ama Birgin Eguneako aurreko egunean oilanda pareta eta dozena bat arrautza entregatu behar izaten zuten Elorrioren.

Bi oilanden artean sei libra pisatu behar zuten. Gero, ugazabek bazkaria ematen zien errenteroei. Santo Tomas aurreko egunean kapoi parearen entregatu behar izaten zien. Ugazabek bakailaoa ematen zien Gabonetan jateko. Horretaz gain, Kontsezioko astean 36 anega gariren balioa dirutan entregatu behar izaten zuten.

5. Ugazabak eta maizterrak

- **Erref:** ARR-164/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Errenta kontuak. Ez dute gogoratzen gari anega zenbatean zegoen. Gerraostean, gobernuak garia entregatzeko tasa jarri zuen. Eta errenta, berriz, dirutan ordaintzen zuten. Ugazaben eta errenteroen arteko bereizketaz hitz egiten dute.

6. Niceto Alcalá-Zamora-ren harrerara joan ez

- **Erref:** ARR-164/014
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Niceto Alcalá-Zamora II. Errepublikako presidentea Arrasatera joan zeneko pasadizoa. Eskola umeak presidenteari harrera egitera joan behar zuten, baina abarrategitarren etxean ondo ikusten ez eta ez zituzten bidali hiru alaba (tartean, Karmen) presidenteari ongietorria ematera. Eskolako beste ume batzuk ere ez ziren joan. Harrera egitera joan ez ziren ume batzuk jolas-ordu gabe zigortu zituzten Garagartzako eskolan.

7. Aita Deustuko unibertsitatean ibilia

- **Erref:** ARR-164/019
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Eskolak gaztelaniaz izaten ziren, baina ez zuten arazorik hizkuntzarekin. Izan ere, aita Deustuko unibertsitate sukaldean pintxe ibili zen eskolak hartzen zituen bitartean, eta aitarekin ikasi zuten gaztelaniaz hitz egiten. Aita Deustuko unibertsitatean nolatan ibili zen azaltzen dute.

8. Bi maistra

- **Erref:** ARR-164/020
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:29:52. **Bukatu:** 00:30:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolako kontuak. Lehenengo eduki zuten maistra falangista zen. 'Cara al Sol' abesten zuten eskolan. Bigarren maistra ona zen: urtean behin bazkari bat egiten dute harekin.

9. Maistrak "egurra"

- **Erref:** ARR-164/022
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Eskolako kontuak. Lehenengo eduki zuten maistra falangista zen. Soledad behin ere ez zuen jo, baina beste ikasleei "egurra" ematen zien.

10. Karlos Eraña beatoa

- **Erref:** ARR-164/024
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:33:56. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Karlos Eraña marianista Karmen eta Soledaden amaren anaia zen. 1936an gorriek hil zuten. Gero, beatifikatu egin zuten.

11. Garagartzan lau hilabete

- **Erref:** ARR-164/026
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:35:03. **Bukatu:** 00:36:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. Ibarretagainekoa baserria utzi eta Garagartzan lau hilabete pasatu zituzten senide batzuen etxean. Ganadua ere eraman

zuten Garagartzara, baina abantzea egon zenean, soldaduek ganaduak kendu zizkien.</p>

12. Etxea nola topatu

- **Erref:** ARR-164/027
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:36:15. **Bukatu:** 00:36:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. Garagartzan lau hilabete pasatu eta Ibarretagainekoa baserrira bueltatu zirenean, etxea nola topatu zuten azaltzen dute.</p>

13. Gerra denborako giroa

- **Erref:** ARR-164/028
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:36:41. **Bukatu:** 00:37:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Malatesta Batailoia Udalan egon zen. Inguruko jendea errepublikanoa zen, eta harreman ona zuten haiekin. Gudariak baserrira joaten ziren, eta taloa eta esne ematen zien jateko.

14. Ibarretagainekora bueltatu

- **Erref:** ARR-164/029
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:37:29. **Bukatu:** 00:38:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. "Gorriek" ganaduak kendu zizkien. Garagartzatik Ibarretagainekoa baserrira bueltatu zirenean ezer gabe zeuden. Lurrak lantzeari ekin zioten. Ahal zuten tokitik lau behi inguratu zituzten, "sekula lotu gabekoak".</p>

15. Buztin-lurrak

- **Erref:** ARR-164/030
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:38:13. **Bukatu:** 00:39:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Ibarretagainekoa baserri inguruko lurrak buztin-lurrak ziren. Ez zuten garirik ereiten lurrak lautadan zeudelako. Lautada izatean, urak garia ito egiten zuen. Artoa eta baba ereiten zuten. Buztin-lurrari buruzko azalpenak.

16. Gerraren etorrerako bizipenak

- **Erref:** ARR-164/031
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:39:33. **Bukatu:** 00:42:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Nola bizi izan zuten gerraren etorrera. Gerra hasieran gudariak etorri ziren: eurenean egondako gudari batzuen izenak aipatzen ditu Karmenek. Dragoien batailoia eta Malatesta batailoia. Aita soroan lanean zebilela tiroak bota zizkien, baita baserriko atera ere. Ibarretagainekoa baserrria bi bandoen erdian zegoez, Garagartzara joan ziren.

17. Uribarritik kanpora, babes bila

- **Erref:** ARR-164/032
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:42:01. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. Ibarretagainekoa baserrria bi bandoen erdian zegoez, etxeko 12 senideak Garagartzara joan ziren senide batzuen etxera. Uribarri auzotik ihesi joandakoen baserritakoeko izenak esaten dituzte.</p>

18. Behiarekin tratua eta gorrien dirua

- **Erref:** ARR-164/034
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:45:18. **Bukatu:** 00:46:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, sei-zortzi behi zituzten baserrian. Abantzea etorri baino lehen, behi bat eraman zuten Santa Agedako ospitalekoek. Bale batekin egin

zuten tratua (dirua zutenean kobratzekotan). Gorrien dirua gordeta dute oraindik etxean.

19. Aita batetik bestera, salmenta egitera

- **Erref:** ARR-164/039
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:50:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Durango, Gernika, Markina, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Ondarroara joaten zen aita, gehien bat tipula-landareak saltzera. Neguan, Gasteizera joaten zen. Lehenengoetan, astoarekin oinez joaten zen batera eta bestera. Gero, trenez. Arrasateko plazara izeba joaten zen. Gaztainak eta sagarrak ere saltzen zituzten.

20. Salmenta kontuak

- **Erref:** ARR-164/041
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:29. **Bukatu:** 00:51:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Durango, Gernika, Markina, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Ondarroara joaten zen aita, gehien bat tipula-landareak saltzera. Neguan, Gasteizera joaten zen. Lehenengoetan, astoarekin oinez joaten zen batera eta bestera. Gero, trenez. Zer saltzen zuten. Aitak saltzen zuen babak fama ona zuen.

21. Etxeko diru-iturriak

- **Erref:** ARR-164/042
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:51:55. **Bukatu:** 00:52:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Aitagandik ikasi zuten ortuko ofizioa. "Ez zegoen beste kintzenarik" diote. Osaba bat lantegi batean aritzen zen sereno lanetan. Herri askotara joaten ziren landareak saltzera.

22. Eibarrera, marrubiekin

- **Erref:** ARR-164/043
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:52:52. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Soledad askotan joan da Eibarrera landareak eta marrubi-loreak saltzera. Bolada batean marrubi asko eduki zuten, Donostiara ere bidaltzen zuten.

23. Marrubiak eta sagarrak

- **Erref:** ARR-164/044
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:55:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Lehen ez zen kanpotik frutarik etortzen. Baserrietan bildutako fruta ondo saltzen zen. Marrubiei buruzko azalpenak. Eguzkibegian hazitako sagarrak hobeto saltzen ziren: eguzkibegiaz sagarra gozatu egiten da.

24. Marrubia

- **Erref:** ARR-164/046
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:55:33. **Bukatu:** 00:56:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Etxean hazten zuten marrubi-landarea. Neguan, sartzen zuten landarea. Lehenengo urtean gutxi ematen zuen. Bi-hiru urte pasatutakoan, belarra irtetzen zitzaion eta lana izaten zen. Negu partean, belarrak kendu behar izaten zituzten. Marrubi alea, maiatzaren lehenengoetan.

25. Barazkien gaineko zerga

- **Erref:** ARR-164/047
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:56:37. **Bukatu:** 00:58:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Plazara saltzera eramaten zuten barazkiengatik zerga bat ordaindu behar izaten zen. Gasteizen, kiloko erriela. Eibarren eta Arrasaten, berriz, txakur handia. "Arbitrios"en ordaindu behar izaten zen zerga. Trenetik jeneroa ateratzearekin batera, otarrak pisatu eta zerga ordaindu behar izaten zen. Barazkia ordaindu egin behar zen, landarea ez. Baserritar batzuek tranpa egiten zuten: barazkiak landare azpian ezkutatu zituzten.

26. Marrubi-bilketa

- **Erref:** ARR-164/048
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 00:59:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Marrubi alea maiatzaren lehenengoetatik San Juanetara bitartean biltzen zuten. Hilabete eta erdiko zikloa izaten da, gutxi gorabehera. Gerora, urte osoan marrubiak ematen zituzten landareak eduki zituzten, baina ez ziren lehengoak bezain gozoak. Etxerako landatzen zituzten.

27. Marrubi-saila eta landarearen zikloa

- **Erref:** ARR-164/049
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:59:34. **Bukatu:** 01:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Marrubi-landareak lau-bost urte irauten dute. Gero, zahartu egiten dira: kendu eta beste leku batean sartu behar dira. Marrubi-saila, 1.000 metro ingurukoa.

28. Ibarretagainekoa baserriko lursailak

- **Erref:** ARR-164/051
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:03:24. **Bukatu:** 01:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Ibarretagainekoa baserriko lurri buruzko azalpena. Baserriaren bueltan, 10-11 hektareako saila zeukaten. Gipuzkoan hiru baserri zeuden gisa horretakoak.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com